

Eskaera Udalari, Europar Batasunetik kanpoko janaria bereziki azter dezan

Azalpena

Azken hamarkadetan, handitu egin dira Europar Batasunean erabiltzen diren fitosanitarioak kontrolatzeko arauak, elikagaien kalitatea eta segurtasuna hobetzeko.

Baina azken urte hauetan, ordea, Europar Batasunetik kanpoko janariaren inportazioa bultzatzen ari da, era guztietako muga zergak kenduz, jakinda janari horrek ez dituela betetzen Europako nekazariek eta abeltzainek bete behar dituzten arau zorrotzak.

Epe ertainera, inportazio horiek pixkanaka handitzen jarraitu nahi du Batasunak, eta, horretarako, Mercosur sinatu nahi du Hego Amerikako herrialdeekin. Hala bada, Europan gero eta gutxiago dauden abeltzain eta nekazarien hondamendia izan daiteke, herrialde horiekin lehiatzea ezinezkoa delako, hemen baino arau askoz gutxiago dituztelako, eta horrek elikagaien kalitate eta segurtasun okerragoa ere badakar.

Udalen eskumenak elikagaiak kontrolatzeko

Udalek, beste administrazio maila batzuen artean, beren udalerrietan banatzen den janaria kontrolatzeko erantzukizuna dute, honako lege hauen arabera:

a) Osasunari buruzko Lege Orokorra (14/1986 Legea)

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=boe-a-1986-10499>

Lege honek udalen gutxieneko erantzukizunak definitzen ditu. 42.3.d artikulua: Ezartzen du udalek gutxieneko erantzukizuna dutela "Gizakien erabilerarekin edo kontsumoarekin zuzenean edo zeharka lotutako elikagaien, edarien eta gainerako produktuen banaketa eta horniduraren osasu -kontrola, bai eta horien garraiobideena ere".

b) Osasun Publikoaren Lege Orokorra (33/2011 Legea)

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=boe-a-2011-15623>

Lege honek jarduteko betebeharra ere indartzen du. Herritarrek osasuna babesteko duten eskubidea bermatzen du, eta administrazio guztiei ezartzen die osasun arriskuak zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko betebeharra, elikagaien segurtasuna barne.

c) 562/2025 Errege Dekretua, nekazaritzako elikagaien katean egindako kontrolei eta bestelako jarduera ofizialei eta horiekin lotutako eragiketei buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=boe-a-2025-13409>

Osasun publikoa arriskuan jar lezakeen hirugarren herrialdeetatik datorren janaria aztertzearen garrantzia adierazten du: 1.3.d) artikulua. Osasun publikoa arriskuan jar dezaketen hirugarren herrialde edo lurraldeetatik datozen gai kutsakorrek eta bestelako salgaiak kontrolatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/625 (EB) Erregelamendua aplikatu ezin zaienean.

3.2 artikulua. 1.2.a) artikuluan adierazitako kontrol ofizialak Elikadura Katearen Kontrol Ofizialeko Estatuko Planean (aurrerantzean, PNCOCA) ezarritako orientabideen arabera egingo dira, kontrol ofizialeko plan autonomikoekin edo udalekoekin bat etorriz edo, halakorik ezean, protokolo espezifikoekin bat etorriz. PNCOCA n sartzan ez diren jardueren eta produktuen kasuan, kontrol ofizialak beren araudi espezifikoaren arabera ezarritako planen arabera egingo dira.

Eskaera

Aurretik azaldutako guztia oinarri hartuta, behean sinatzen dugun pertsona edo erakundeok honako hau eskatzen dugu:

a) 2025ean Udalak egin dituen elikadura kontrolei buruzko informazioa eskatzen dugu, gutxienez honako datu hauek zehaztuz: kontrol kopurua, janaria aztertu den herrialdeen jatorria, lortutako emaitzak, zehapenak edo emaitzetan oinarrituta hartutako erabakiak.

b) Udalari eskatzen diogu gutxienez hilean behin azter dezala Europar Batasunetik kanpoko janaria udalerriko hainbat supermerkatutan, eta lortutako datuak bidal diezazkigula. Une honetan, Europar Batasunetik kanpoko oilasko haragia ere aztertzea eskatzen dugu, hemengo baldintza berberak betetzen dituen jakiteko.

Pertsonaren izen-abizenak edo Erakundearen izena

Helbidea

Posta elektronikoa